

UPV/EHU-KO PSIKOLOGIA FAKULTATEAK ESKAINITAKO TITULUEN URTEKO TXOSTENA



Dokumentu honen xedea da UPV/EHUko Psikologia Fakultateak emandako ikasketen azterketa eta balorazioa eskaintzea. Txosten hau oinarri hartuta, hobekuntza plan bat egingo da, hautemandako gabeziak zuzentze aldera. Gabezia horiek ekintza planean jasota daude.

Donostia, 2015eko abenduaren 14a

PSIKOLOGIAKO GRADUKO TITULUAREN TXOSTENA

TITULUAREN KUDEAKETA: 2014-15 IKASTURTEAN KALITATEA
BERMATZEKO EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA

Jarraian, tituluaren kalitatea hobetzeko 2014-15 ikasturtean egindako ekintzak aurkezten ditugu.

Jarduerak hiru multzotan banatuta deskribatzen dira: ikasleen orientazioa, gaien arteko koordinazioa eta irakaskuntzaren hobekuntza.

1. GRADUKO IKASLEAK ORIENTATZEKO ETA PSIKOLOGIA FAKULTATEAN HAIEN INTEGRAZIOA ERRAZTEKO JARDUERAK

1.1. IKASLE BERRIEN HARRERA

Ikasle berrien harrera ekitaldia Areto Nagusian egin zen, 2014ko irailaren 7an. Jardunaldian dekanook, Ikasketen dekanordeak, Akademia Antolakuntzako dekanordeak eta Ikasleen Kontseiluko ordezkari batek parte hartu zuten. Harrera Gidaliburua banatu zen, eta haren edukiak azaldu zituzten, hots:

- **Fakultatearen Antolakuntza (ikasketa, irakaskuntza eta administrazio egitura)**
- **Ikasketa plana**
- **Zerbitzuak**
- **Arautegiak**
- **Ordutegiak**

1.2. BERDINEN ARTEKO TUTORETZA

2013-2014 ikasturtearen amaieran, lehen mailako ikasleen tutoretzarako ikasle boluntarioak erakartzeko prozesua hasi genuen. Deialdia irailean errepikatu bazen ere, ez zen zeregin honetarako boluntariorik agertu, ez deialdi batean ez bestean. Urrian azken saio bat egin ondoren, beste deialdirik ez egitea erabaki zen. Beraz, 2014-2015 ikasturtean ez zen berdinen arteko tutoretzarik egin.

1.3. MUGIKORTASUN PROGRAMEI BURUZKO INFORMAZIOA

2015eko abenduaren 3an, Nazioarteko Hedakuntzaren arloko dekanordeak informazio saioa antolatu zuen mugikortasun programei buruzko argibideak emateko ikasleei. Saioan, hainbat gai aipatu ziren: jardunean dauden

programak, horietako bakoitzean parte hartzeko baldintzak, eta bete beharreko epeak eta izapideak (Mugikortasun Prozedura).

1.4. PRACTICUMARI ETA KANPOKO PRAKTIKEI BURUZKO INFORMAZIOA

2015eko martxoaren 4an, Kanpoko Praktiketako eta Kalitateko dekanordeak informazio saio baterako deia egin zien hirugarren mailako ikasleei. Saioan, informazioa eman zien practicumari buruz, curriculumeko kanpo praktikak egiteko ikastegian eskainitako arloei buruz eta praktikako plazak eskatzeko eta esleitzeko prozedurari buruz. Gainera, informazioa eman zen ere borondatezko kanpoko praktikei eta horiek eskatzeko prozedurari buruz.

Fakultatearen webguneak graduako praktiken gaineko informazio eguneratua ere eskaintzen die ikasleei, begiraleei eta barne tutore/irakasleei.

1.5. GRADU AMAIERAKO LANARI (GRAL) BURUZKO INFORMAZIOA

1. GRALaren egutegi edo ziklo bat ezarri da, bi informazio saiorekin: bata, ikasturtearen hasieran, laugarren mailako ikasleentzat; bestea, bigarren lauhilekoan, hirugarren mailakoentzat.
2. Laugarren mailako ikasleen bilera 2014ko irailaren 23an egin zen, eta GRALari eta aurre matrikula prozedurari buruzko informazioa emateaz gainera, webgunean eskura daitekeen informazioa azaldu zen. Gainera, ikasleei adierazi zitzairen prozesuaren zer unetan jasoko dituzten jakinarazpenak edo informazio mezuak GAUR bitartez.
3. Hirugarren mailako ikasleei dagokienez, bilera 2015eko martxoaren 4an egin zen, Kanpoko Praktiketako dekanordearekin. GRALa aurkeztu eta azaldu zen, eta webguneko informazioari buruzko argibideak eman ziren.
4. 2014ko urriaren 15ean, GRALaren webgunea eguneratu zen, 2014-15 ikasturterako gaiak sartuz, eta mezu bana bidali zitzairen ikasleei, eguneratze horren eta aurre matrikularako epearen berehalako irekieraren (2014ko urriaren 22an) berri emanez.
5. Aldaketak eskatzeko epea igarota, behin zuzendariak eta gaiak behin betiko zehaztuta, informazio hori helarazi zitzairen ikasleei eta irakasleei, GAUR bidez. Bide bera erabilita, defentsa aldiatarako datak jakinarazi ziren.

2. IRAKASGAIK KOORDINATZEKO JARDUERAK

Ikasturtearen hasieran, koordinazio bilera orokor bat egin zen, lehen hiru mailetako eta minorretako koordinatzaileekin, koordinazio prozesua hasteko. Lehen bilera horretan, ikaslearen gidak jasotzeko datak aldatzea erabaki zen; zehazki, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotzea.

Lauhileko bakoitzaren hasieran, 1., 2. eta 3. mailetako koordinazio bilerak egin ziren, irakasgaien koordinatzaileekin, eta aztertzen jarraitu ziren zeharkako gaitasunekin eta jardueren banaketarekin lotutako irakasgai bakoitzeko zereginak. Minorretako koordinatzaileekin bilerak lehen lauhilekoaren hasieran eta amaieran egin ziren, aldi horretan bakarrik eskaintzen ditugulako.

Ikasturteko eta minorretako koordinatzaileekin eginiko bileran, ebaluazioari buruzko informazioa hobetzeko ikaslearen gidan egin beharreko aldaketak erabaki ziren.

Ikasturtearen hasieran, 67 irakasgairen ikaslearen gidak jarri ziren webgunean. Gida horietan, irakasgaiei eta horiek ematen dituzten irakasleei buruzko informazioaz gainera, honako hauei buruzko xehetasunak ematen dira: irakasgaien programa teorikoa eta praktikoa; irakasgaiei lotutako gaitasunak; ebaluazio sistemak (ikaskuntzen eta gaitasunen etengabeko ebaluaziorako eta amaierako ebaluaziorako); eta azterketari uko egiteko modua eta epea. Gidak irakasgaietan erabiltzen diren hizkuntza guztietan argitaratu ziren.

Azkenik, berrikusi egin ziren 2015-2016 ikasturterako ikaslearen gidak: 1., 2. eta 3. mailak, minorrak, euskararen plan gidaria eta practicumerako sarrera teorikoa.

3. TITULUA HOBETZEKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

3.1. IKASKETA PLANAREN ALDAKETAK

2014-15 ikasturtean, irakasgai hauetako bektore aldaketa izan zen Ikasketa Planean egin zen aldaketa bakarra: Psikologia dinamikoa, Pentsamenduaren eta hizkuntzaren psikologia, Kirolaren psikologia, Jokabide Neurozientziaren Oinarriak, Garapenaren psikologia I, Garapenaren psikologia II, Prebentzioa eta esku-hartzea hezkuntzan, Familiaren psikologia, Erakundeen eta lanaren psikologia, Lanpostuen ebaluazioa, errendimendua eta hobekuntza, Taldeko esku-hartze psikosozialerako sarrera, Publizitatearen eta marketinaren psikologia, Giza baliabideen psikologia, Programazio psikosoziala, Ingurumen psikologia, Psikologia juridikoa, Ekipoen eta erakundeen hobekuntzarako teknikak eta tresnak, Esku-hartze psikosozialeko programen ebaluazioari aplikatutako diseinuak, Ebaluazio eta Diagnosi Psikologikoa, eta Osasunaren psikologia.

3.2. IRAKASKUNTZAREN PLANGINTZA

2014-15 ikasturtean, lehen mailako matrikula datuak aukeratutako hizkuntzaren (euskara edo gaztelania) arabera aztertzen jarraitu dugu, baita bigarren nahiz hirugarren mailako nahitaezko irakasgaien matrikularen bilakaera ere, aldagai beraren arabera. Bestetik, kontuan izanik 2010. urteaz geroztik gaztelaniazko matrikula lehen mailan pixkanaka jaisten joan dela eta 2008. urteaz geroztik euskarazkoa igotzen joan dela, 2014-15 ikasturtean, erabaki zen bi lerroetan mantentzea ikasgelako eta/edo tailerreko praktiken hiru talde eta mintegi/ordenagailuko praktikako sei talde. Orduategiak graduko lehen eta bigarren maileri aplikatu zaizkien egitura horren arabera egin ziren.

Hautazkoen ordutegiek, bestetik, modulu egitura dute, hainbat minorretako irakasgaiak hautatzea errazten duena, horri begira jarritako bi urteko epean eskatzen diren hautazko kredituen kopurua osatu arte.

3.3. LAUGARREN MAILAKO KANPOKO PRAKTIKEN JARRAIPENA ETA HOBEKUNTZA

2014/15 ikasturtean, praktiketako 139 zentrok parte hartu zuten gure ikasleen curriculum prestakuntzan. Hain zuzen, 211 ikasle matrikulatu ziren, eta, horien artetik, 11k garapenerako lankidetzaren programaren barruan egin zituzten praktikak.

Ikasturte horretan, besteak beste, honako ekintza hauek egin ziren:

- Plazen esleipena aldatu egin da, eta orain uztailean egiten da, automatrikula egiteko unean, GAUR plataformaren bidez. Ikaslearen batez besteko notak eta egiteko dituen kredituen kopuruak zehazten dute esleipenaren hurrenkera. Horrek katalogoa prestatzeko epea luzatzen du.

- Berrikusi egin dira begiralearen (honi gaitasun bakoitzaren eskuratze maila ebaluatzea ahalbidetuko dioten errubrikak sartuta) eta ikaslearen ebaluazio galdetegiak (ikasleentzako galdetegi berri eta atseginago bat egin da, ikasle bakoitzaren helbide elektronikoko korporatibora bidal daitekeena. Galdetegi berriari, errubrikak gehitu zaizkio, ikasle bakoitzak ebalua dezan zenbateraino lagundu dioten praktiken zentroan eginiko lanek gaitasun bakoitzaren garapenean).

- Irakasle, erakunde laguntzaile eta ikasleentzako informazio nagusia eguneratzen jarraitu dugu, Psikologia Fakultatearen Graduoko kanpoko praktiken webgunean.

- Amaitzeko, ikasleen prestakuntzarekiko duten konpromisoa dela-eta, prozedura bat zehaztu eta hainbat jarduera jarri dira martxan, erakunde laguntzaileetako begiraleen lana saritzeko.

- Tutoreak esleitzeko irizpideak berrikusi dira, eta 2015/16 ikasturtean tutoreen esleipena Kanpoko Praktiken dekanordeak egitea proposatu da. Irizpide nagusiak honako hauek dira: ikastegiko espezializazio arloarekiko antzekotasuna eta aurreko ikasturteetan ikastegi horretako ikasleei eginiko tutoretza.

- Borondatezko praktikak egiteko irizpideak berrikusi dira. Barne tutorea izateko eskakizunak hauek dira: psikologo baten gainbegiratze zuzena eta psikologiako graduaren gaitasunen gaineko prestakuntza.

3.4. LAUGARREN MAILAKO GAL-AREN JARRAIPENA ETA HOBEKUNTZA

GRALaren egutegi edo zikloaren barruan, 2014ko urrian, epaimahaietarako irakasleak eskatu zitzaizkien sailei; maiatzean, GRALeko irakasle zuzendariak eta gaien eskaintza.

Fakultateko Batzarrak GRALaren matrikula eta defentsa egiteko baldintzak aldatzea onartu zuen, eta baldintza berriak 2015-16 ikasturtean aplikatuko dira. Onartutako testua honako hau da: GRALaren aurrematrikula egin duten Psikologia Fakultateko ikasleek haren matrikula eta defentsa egin ahal izango dute, baldin eta nahitaezko kanpoko praktikak eta beste irakasgai batzuetan gehienez 12 kreditu egin gabe badituzte.

Fakultateko Batzarrak, halaber, 2015-16 ikasturtean GRALa defendatzeko daten aldaketa ere onartu zuen, uztaileko deialdia ekainera aldatuta.

3.5. MUGIKORTASUNA

Erasmus Plus programa berria martxan jartzeak pitin bat zorroztu baditu ere harrera unibertsitateek ezarritako hizkuntz eskakizunak, ez dugu beherakadarik sumatu mugikortasun programen eskaeretan (alderantziz baizik). Edizio honetan, Beste norakoak programan, ikasleek aukera izan dute CONAHEC eta CREPUQ sareetako unibertsitateak hautatzeko.

Aurreko ikasturtean sinatu ziren hitzarmen berriei (Belgikako Lovainako Unibertsitate Katoliko frankofonoarekin eta Erresuma Batuko Bangorreko Unibertsitatearekin –azken hori staffaren mugikortasunerako–), beste hitzarmen bat erantsi behar zaie: Erresuma Batuko Aberdeeneko Unibertsitate ospetsuaren Psikologia Fakultatearekin ikasleentzat izenpetu dugun mugikortasun hitzarmena. Hitzarmen honen helburua da gure ikasleen eskaera gero eta handiago bati erantzutea, unibertsitate anglofonoetan egonaldiak egiteko.

3.6. IKASLEAK LANERATZEKO EKIMENAK

Bestetik, ikasleei lan merkatuak bidea optimizatzeko ikastaroak eskaintzen jarraitu dugu, ikastaro hauen bidez: Komunikazioa eta Marka Pertsonala, eta Lidergoa eta Pertsonen Garapena.

Ikastaro horiek hirugarren eta laugarren mailako ikasleei eman zaizkie, eta 6tik 5.4ko (Komunikazioa eta Marka Pertsonala) eta 5eko (Lidergoa eta Pertsonen Garapena) balorazioak izan dituzte.

3.7. PSIKOLOGIAKO GRADUAREN PUBLIZITATEA EGITEKO JARDUERAK

Fakultatearen Barne Komunikazio Plana aztertu eta eguneratu dugu, komunikazio xede diren eduki nagusiak identifikatuz, eta bi atal nagusitan egituratu da plana: komunikazio eduki giltzarriak eta komunikazio foro giltzarriak. Atal batean nahiz bestean, gogoeta saio baten ondoren, hobetu egin dira helburuak, interes taldeak, edukiak, kanalak eta igorleak, eta identifikatu egin dira ikastegiaren Prozesuen Araberako Gestiorako Sistemaren erabiltzen diren prozesuak.

Gainera, 2012-13 ikasturtean hasi genuen Ikusgarritasun Planarekin jarraituz, mantendu egin da fakultateak hedabideetan duen presentzia, dekanotza taldeko arduradunaren bitartez, zeina solaskide aritzen baita Unibertsitatearen Komunikazio Bulegoarekin eta psikologia gaietan adituak behar dituzten hedabideekin.

Berrikusi eta eguneratu egin ditugu webgunearen atal guztiak, eta eduki berriak sartu dira.

- **Ateak Irekitzeko Eguna** eta **Feriak** ezinbesteko elementuak dira tituluari buruzko informazioa emateko psikologia ikasketak egiteko interesa duten batxilergoko ikasleei. 2015eko urtarrilaren 24an eta 31n eta otsailaren 7an, UPV/EHUK tituluak ezagutarazteko hiru campusetan (Donostian, Gasteizen eta Bilbon) antolatzen dituen **Unibertsitate Orientaziorako Jardunaldietan** parte hartu zuen Psikologia Fakultateak. Interesatuei eskainitako banakako arretaz gainera, hitzaldi bat eman zen, argibideak eta azalpenak emateko, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Horrekin batera, material idatzia banatu genuen: triptikoak, irakaskuntza gidak eta

hitzaldien edukiak. Gipuzkoan eta Bizkaian, stand bikoitzak eskatu zituzten, lagun kopuru handiago bati erantzuteko.

- 2015eko martxoaren 12an, **Ateak Irekitzeko Eguna** egin zen. Batxilergoko azken mailako ikasleak goizez edo arratsaldean izan ziren gure fakultatean, eta psikologia ikasketei buruzko hitzaldi labur bat eman zitzaien. Gero, bisita gidatu bat egin zuten, fakultatearen instalazioetan barrena. Ateak Irekitzeko Egunean, dekanotza taldeak eta fakultateko irakasleek eta ikasleek parte hartu zuten.

3.8. IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK (IKE)

18 IKE jaso dira, den-denak ikasleentzat. Izapidetutako IKE guztien artetik, 12k eman dute ekintzaren bat egiteko aukera. Azken horien artetik, 10 irakasle-ikertzaileei eta sailtako irakaskuntza plangintzari buruzkoak ziren; hortaz, IKE bat sailari eta inplikaturako irakasle-ikertzaileei helarazi zitzaien, haien esku utzita egin beharreko ekintzak. Kexa bat Idazkaritzari buruzkoa zen, eta beste bat Fotokopiagailuari buruzkoa. Gainerako 6 kexak argitu egin dira, nahiz eta haietatik ez den ekintzarik eratorri.

3.9. KALITATEAREN BERMERAKO SISTEMA (KBS)

Berrikusi egin dira KBSren prozedura guztiak eta batik batik prozeduren kudeatzaileak eguneratu dira (dekanatzaileentzat ondoren izandako berrantolatetatik sortutakoak gehien bat).

Analisi, Berrikuspen eta Hobekuntza prozesua hasteko, lortutako emaitzak aztertu eta ikasleentzat gogobetetze txostenak egin ziren: gogobetetzea tutoretzen erabilerarekin, fakultateko zerbitzu eta jarduerarekin, eta irakaskuntzaren zenbait alderdirekin. Hala, 2015-16 ikasturterako gogobetetze galdetegi hau aldatzea erabaki zen. Gainera, oinarrizko irizpide batzuk aztertu ziren titularen jarraipen eta akreditaziorako, foku taldeen bitartez, eta talde horietan bereiz parte hartu zuten ikasleek, irakasle-ikertzaileek eta AZPko langileek. Horrez gainera, txostenak prestatu dira mugikortasun programan parte hartu duten ikasleentzat buruz eta nahitaezko kanpoko praktiken gogobetetzeari buruz. Amaitzeko, txosten bat egin da abiapuntutzat hartuta ikasleentzat irakasle-ikertzaileen irakaskuntza lanari buruz emandako ebaluazio datuak.

Txosten hauek guztiak Kalitate Batzordeak aztertuko ditu, eta indarguneak, hobekuntza arloak eta eratorritako ekintzak ezarriko ditu. Gai horiek guztiak jarraipen eta kudeaketa txostenetan jasoko dira.

BALIABIDEAK:

BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Psikologia Fakultateak prestakuntza ekintzak ongi egitea bermatzen duten baliabide materialak ditu:

- 26 gela eta ikasteko 6 laborategi informatiko, irakaskuntzarako beharrezkoak diren ekipoekin hornituta (ordenagailuak, proiektzio kanoiak, DVDko irakurgailuak eta Internetarako konexioa)
- 2 ordenagailu gela, ikasleek erabiltzeko
- Balio anitzeko gela bat
- Praktikako laborategi bat
- Areto bat, mugikortasuneko eta masterreko ikasleentzat
- Areto Nagusia eta gradu aretoa, hurrenez hurren, 261 eta 50 pertsonentzako edukiera dutenak
- Batzar aretoa
- Dekanotzako bilera gela
- Bulego bat, Ikasleen Kontseilurako
- Hari gabeko WI-FI sarbide zerbitzua
- Saitetako mintegiak, irakasleen bulegoak eta antzeko beste espazio batzuk
- Idazkaritza
- Atezaintza
- Kopiagintza
- Kafetegia, jantokia, mikrouhinen zerbitzuak eta beste batzuk

GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

Fakultatean denbora osoz ari diren irakasle-ikertzaileen kopurua 92,25 da (aurreko ikasturtean, 96,25). Horien artetik, % 83,73 plantillakoak dira, eta % 16,26k aldi baterako postuetan dihardute. Jaitsiera txiki bat izan da irakasle-ikertzaileen kopuru osoan, 2014-15 ikasturtean plantillako irakasle-ikertzaileen artean izan diren erretiroengatik eta postu horiek aldi baterako langileek ez betetzeagatik. Ikusi beharko dugu 2015-16 ikasturtean plaza horiek betetzen diren.

% 83,96 doktoreak dira, eta % 24,66k hizkuntza ez-ofizialen ziurtagiriak dituzte. Aitortutako seiurteko kopurua 114 da.

2014-15 ikasturtean, zortzi irakasle ebaluatu ziren DOCENTIAZ programaren bidez, eta ebaluazio guztiak positiboak izan ziren. % 25ek emaitza bikaina lortu zuten. DOCENTIAZ bidez ebaluatu diren irakasleen ehunekoa % 26,42koa da.

AZPko langileen kopuruak (denbora osoz ari direnak) egonkor jarraitzen du (18), eta langile horien prestakuntza Pertsonaleko Gerenteoreordetzari dagokio.

1 IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA

1.1 ikasketen eskaera

Eskura ditugun datuen arabera, 2014-15 ikasturtean, eskaerak handia izaten jarraitu zuen Psikologiako tituluan. Ikasturte horretan, 728 ikaslek hautatu zituzten psikologia ikasketak lehen aukera gisa, eta gehikuntza bat izan da hor aurreko ikasturteei dagokienez. Gainera, handia izan zen ere psikologia ikasketak bigarren edo hurrengo aukera gisa hautatu zituzten ikasleen kopurua (1.882).

1.2 Onartutako ikasleen kopurua eta profila

2014-2015 ikasturtean, 268 ikasle onartu genituen, eta horien artetik, azkenean 258 matrikulatu ziren. Hots, tituluaren okupazioa % 104,4koa izan zen eskainitako plazei (250) dagokienez.

Ikasle horien artetik, % 93,87k lehen aukera gisa hautatu zituzten ikasketa hauek (tituluaren egokitzapena), eta gehikuntza bat adierazten du horrek aurreko ikasturteei dagokienez.

Matrikulatuen % 81,78 Unibertsitatera Sartzeko Probetatik zetozen; % 13,17k LH egin zuten; % 2,32 25 urtetik gorakoak ziren; eta % 1,94 unibertsitate tituludunak ziren. Datuak aurreko ikasturtekoen parekoak dira.

Gutxieneko onarpen nota 7,05 izan zen, eta gehikuntza bat adierazten du horrek aurreko ikasturteei dagokienez.

Ikasle berriek hautatutako hizkuntza lerroei dagokienez, igoera txiki bat izan zen gaztelaniazko lerroan aurreko bi ikasturteei dagokienez; euskarazko lerroan, aurreko ikasturteetako gorakada moteltzen ari dela ikus daiteke. Hurrengo ikasturteetan, datu hauen jarraipena egin beharko dugu, irakats betebeharrean eta taldeen konfigurazioan izan ditzaketen eragina aztertzeko.

2 . IKASKETA ERRENDIMENDUA

Emaitzek oso onak izaten jarraitzen dute errendimendu akademikoko tasa guztietan: errendimendu tasen emaitza % 87,03koa izan da (aurreko ikasturtean, % 87,35); arrakasta tasena, % 93,96koa (aurreko ikasturtean, % 93,32); eta ebaluazio tasena, % 92,62koa (aurreko ikasturtean, % 93,6). Ehuneko hauek nahiko egonkor mantentzen badira ere urteetan zehar, datozen urteetan aztertu beharko ditugu, arreta jarritz joeretan, bigarren mailan bereziki.

Lehen urteko uzte tasa % 8,24koa da, eta tituluaren diseinuan aurreikusitakoaren barnean mantentzen da, beraz.

3 GOGOBETETZEA

3.1 Ikasleen gogobetetzea

Ikasleek gogobetetzeari buruzko hiru inkestari erantzun diete. Lehenengoan, tutoretzei, zerbitzuei, Fakultateko jardueri eta irakaskuntzarekin lotutako hainbat alderdiri buruz galdetu zaie.

Bigarrena, berriz, ikasleek irakaskuntzari begira duten gogobetetzeari buruzkoa da. Eta hirugarrenak, laugarren mailako ikasleek erantzun beharrekoak, praktikei begira duten gogobetetzea du ardatz.

Gainera, Erasmus mugikortasuneko ikasleek laugarren inkesta bati erantzun behar izan diote, atzerrian egin duten egonaldiari buruzkoa.

Fakultateko tutoretzen, zerbitzuen eta jardueren erabileraren eta irakaskuntzaren alderdi batzuen balorazioa:

Tutoretzei dagokionez, gehienek horien ordutegiari buruzko informazioa fakultateko web orriaren bidez jasotzen dute (% 78,8), baita moodle tresnaren (% 75,4), irakasleen bulegoaren (% 72,9) eta GAUR aplikazioaren (% 65,3) bidez ere. Tutoretzen ordutegiari buruzko lau informazio iturri horien gogobetetze mailaren batez bestekoa 2,98 eta 3,39 artekoa da; balio horiek onargarriak direla uste dugu, baina hobetu daitezkeela.

Ikasleak ez dira askotan joaten tutoretzetara (batez beste, 2,57; tartea:1-4). Ikasleak tutoretzetara joaten dira, batez ere, lanak gainbegiratzeko, eskoletako edukiei buruzko zalantzak argitzeko eta azterketa baino lehen azken zalantzak argitzeko. Azkenik, tutoretzetan jasotako arretaren gogobetetze maila onargarria da (3,29; tartea: 1-5), eta hobetzeko modukoa.

Fakultateak helarazitako informazioari dagokionez, batez besteko gogobetetze maila eskasa da. Ondoen baloratutako alderdiak hauek dira: kalifikazioak argitaratzeko moduari eta lekuari buruzko informazioa (3,10), fakultateko espazioen seinalez tapena (2,79), ordutegiei buruzko informazioa (2,78) eta irakaskuntzarako erabilerarako informatika ikasgelei buruzko informazioa (2,78). Informazioaren hedapena hobetzeko ahaleginak egin arren, ikasleen gogobetetze mailak eskasa izaten jarraitzen du; hortaz, ekintza berriak egingo dira alderdi hori hobetzeko eta gogobetetze inkesta aldatuko da 2015-2016 ikasturterako; izan ere, uste dugu zenbait galdera ez daudela ondo eginda, eta, horrek, jakina, eragina du lortutako emaitzetan.

Irakaskuntzaren arloko alderdiekiko gogobetetze mailari dagokionez, tarteko puntuazioak lortu dira (tartea: 1-5) irakaskuntzari laguntzeko moodle plataformari (3,45), etengabeko ebaluazioari (2,64) eta irakasgaietan proposatutako zereginen koordinazioari (2,39) dagokionez. Azkenik, okerren baloratutako alderdia zereginen denbora-sekuentziarioa da (2,31). Alderdi hori hobetzeko irakaskuntza koordinazioan ahaleginak egiten diren arren, nabarmena da oraindik ere gai hori landu behar dela eta hobekuntza ekintzak proposatu behar direla.

Ikasleek jasotako irakaskuntzaren inguruan eginiko balorazioa.

Prozedura eta Parte-hartzaileak

Psikologia Fakultateko ikasleek irakasle-ikertzaileei buruz zer iritzi duten jakiteko ebaluazio inkestak autopase sistemaren bidez egin ziren.

Inkesta horien emaitzak Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuari eskatu zaizkio, Excel formatuan, azterketa errazteko. Bidalitako datuetatik, Psikologiako graduari dagozkionak hautatu ziren.

2014-15 ikasturtean graduan irakaskuntza lanetan aritu ziren 108 irakasleen artetik, 87 irakasle (% 79,81) ebaluatu dituzte ikasleek, eta 21 irakasle gelditu dira ebaluaziotik kanpo. Azken horietatik, 11 irakasle trebatzen ari diren ikertzaileak edo ordezkioak dira, kontratuen arabera irakaskuntzan lan egin dezaketenak, eta ebaluatuak izateko baldintzak betetzen bazituzten ere, ez zuten autopasea egin, beharbada ez zekitelako beren irakaskuntza egoerak ebaluatua izatea eskatzen zuela.

Emaitzak

Prozesuan parte hartu duten 87 irakasleei dagokienez, 185 irakaskuntza egoera ebaluatu dira, ikasleek igorritako 6.528 ebaluaziorekin, eta 56 irakasgai (eskaintzen diren 58 irakasgaietatik).

Ebaluazioan lortutako erantzunen ehunekoa, irakasgaiaren matrikulari dagokionez, % 7,35 eta % 129,33 artean kokatzen da, batez bestekoa % 56,81 izanik eta moda, % 80.

Oharra: Lau irakaskuntza egoerak, kasu honetan lau irakaslek, erantzun gehiago izan dituzte matrikulatutako ikasleak baino. Aztertu egingo da horren arrazoia.

Eskoletara joaten direnen batez bestekoari dagokionez, ehunekoa % 8,82 eta % 115,38 artean kokatzen da, matrikulari dagokionez. Batez bestekoa % 51,89 da; moda, % 50.

Irakasgaien zailtasunaren ebaluazioa (1=oso erraza, 5=oso zaila) 1,75 eta 4,4 balioen artean kokatzen da; batez bestekoa 3,13 da; moda, 2,6. Bestetik, 9 irakaskuntza egoera daude 2,5eko edo balio horretatik beherako puntuazioekin (% 4,86), eta irakasgai bakar bat dago 2tik behera. 3,5etik gora, 38 irakaskuntza egoera daude (% 20,54), eta 6 irakaskuntza egoerak (% 3,24) 4ko ebaluazioa (zaila) gainditzen dute.

Irakasgaiarekiko hasierako batez besteko interesa (1=oso baxua, 5=oso altua) 1,64 eta 4,15 artean kokatzen da, batez bestekoa 3,22 eta moda 3,2 izanik.

Irakasgaiarekiko amaierako batez besteko interesa (1=oso baxua, 5=oso altua) 1,79 eta 4,66 balioen artean kokatzen da, batez bestekoa 3,50 izanik eta moda, 4.

Irakasgaiarekiko interesaren balantzea (amaierakoa-hasierakoa) -1,28 eta 1,118 artean kokatzen da, batez bestekoa 0,27 izanik. Ebaluatutako irakaskuntza egoeren % 18,38k balantze negatiboa dute, baina soilik % 3,78k dute -0,5 puntutik gorako balantze negatiboa. Bestetik, % 81,62k balantze positiboa dute; % 29,19k, 0,5 puntutik gorako balantzea, eta % 4,32k, 1 puntutik gorakoa.

Azkenik, *Oro har, uste dut irakasle ona dela* itemari dagokionez (1=gutziz desados, 5=gutziz ados), puntuazioak 2 eta 5 balioen artean kokatzen dira; batez bestekoa 4,13 izanik, eta moda, 4,6.

11 irakaskuntza egoerak 3ko puntuazioa edo hortik beherakoa dute (% 5,95); egoeren % 25,95ek 3tik gorakoa eta 4tik beherakoa; % 37,84k 4 eta 4,5 artekoa; eta irakaskuntza egoeren % 30ek 4,5etik gorako puntuazioa dute.

Ondorioa

Lehenik eta behin, aipatzekoa da ebaluatutako irakasle kopuru (% 79,81) eta irakaskuntza egoera kopuru handia.

Eskoletara joaten direnen batez bestekoa matrikulatutako ikasleen % 51,89koa da. Oro har, inkestei erantzuten dieten ikasleen ehunekoa bat dator eskoletara joan ohi direnen ehunekoarekin, eta horrek balioa ematen die inkesta honetan lortutako emaitzei.

Irakasgaien zailtasun maila ertaintzat hartzen da, eta ez dago oso erraztat edo oso zailtzat hartzen diren irakasgaien ehuneko handirik.

Hasieran eta amaieran irakasgaiekiko dagoen batez besteko interesari dagokionez, balantzea positiboa da, eta soilik ebaluatutako irakaskuntza egoeren % 3,78an da balantze negatiboa 0,5 puntutik gorakoa.

Ikasleek irakasleen mailaz duten iritziari dagokionez, lortutako batez bestekoa oso ona da (4,13koa, 1etik 5erako eskalan). Soilik % 5,95ek dute 3tik beherako puntuazioa (eskalaren erdiko balioa), eta aipatzekoa da ebaluatutako irakaskuntza egoeren % 37,84ren ustez irakaslea oso ona dela (4 eta 4,5 artean), egoeren % 30etan bikain izanik (4,5etik gorako puntuazioa).

Hori horrela, kontuan izanik azken lau ikasturteetako joerak, esan daiteke emaitza hauek egonkorrak direla eta gehikuntza txiki bat izan dela eskoletara joaten direnen kopuruan eta matrikulari dagokionez egin diren ebaluazio portzentaian.

Curriculumeko kanpo praktiken balorazioa:

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren inkesten emaitzen arabera, praktiken balorazio globala oso positiboa da, eta bat datoz horretan ikasleak (4.3/5 puntu), begiraleak (4.4/5 puntu) eta tutoreak (4.5/5 puntu). Bestetik, gogobetetze inkestek ere emaitza global ertain-altuak dituzte UPV/EHUK praktikak kudeatzeko eta antolatze duen moduari dagokionez: ikasleak (4.1/5 puntu), begiraleak (3.8/5 puntu) eta tutoreak (4.1/5 puntu).

2014-15 NAHITAEZKO KANPOKO PRAKTIKEN GOGOBEETZE INKESTAK				
Ebaluazio arloak				
	Orokorra	Praktiketako zentroa	Fakultatearen kudeaketa	Autoebaluazioa
Ikasleak	4.3	4.3	3.3	-
Tutoreak	4.5	4.4	4.1	4.4
Begiraleak	4.4	4.5	3.8	4.3

Mugikortasunaren balorazioa:

Emaitzak aztertuta, esan dezakegu ikasleek oso ondo baloratzen dutela

kanpoan eginiko egonaldia. Ebaluazio orokorra oso altua da, eta ibilbide profesionalarentzat oso mesedegarri izango dela uste da.

Harrera erakundearen kalitate akademikoa	4,11 (1-5)
Egonaldiaren ebaluazio globala	4,58 (1-5)
Egonaldia mesedegarri izango da ibilbide profesionalerako	3,52 (1-5)

3.2 Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen gogobetetzea

Gogobetetze inkesta bi urtetik behin egiten du Ebaluazio Instituzionaleko Zerbitzuak, eta 2014-15 ikasturtean ez da ebaluaziorik egin.

OSASUN PSIKOLOGO OROKORREKO MASTER TITULUAREN TXOSTENA

**TITULUAREN KUDEAKETA: 2014-2015 IKASTURTEAN KALITATEA
BERMATZEKO EGINDAKO JARDUEREN LABURPENA**

2014ko urtarrilean ANECAk Osasun Psikologia Orokorreko Masterraren egiaztagiria eman ostean, 2014-15 ikasturtean bigarren kurtsoa ezarri da. Ondoren, tituluaren kalitatea balioesteko gauzatutako jarduerak eta martxan jarritako hobekuntza ekintzak aurkeztuko ditugu.

Egindako jarduerak hiru ataletan daude deskribatuta: ikasleen orientazioari begirakoak, gaien koordinazioari begirakoak eta irakaspenen hobekuntzari begirakoak.

1. GRADUKO IKASLEEN ORIENTAZIOARI BEGIRAKO ETA HORIEK PSIKOLOGIA FAKULTATEAN TXERTATZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

1.1. IKASLE BERRIEI HARRERA

Ikasle berriei 2014ko Urriak 6an egin zitzaien harrera, Areto Nagusian. Bertan parte hartu zuten Dekano andreak, Masterraren zuzendariak, Masterraren Batzorde Akademikoko kideek eta Masterraren Idazkari administratiboak. Irakaskuntza Gidaliburua banatu zitzaien, eta Masterraren antolamenduari buruzko alderdi interesgarriak azaldu zitzaizkien:

- **Ongietorria eta Masterraren aurkezpena**
- **Masterraren Batzorde Akademikoa**

- Irakasgai, gaitasun, irakasle eta ebaluazioen eskaintza
- Egutegi akademikoa
- Baliabide materialak
- Kanpoko Praktiak
- Master Amaierako Lana
- Tutoretza programa
- Web orriaren aurkezpena

1.2. TUTORETZA PROGRAMA

Tutoretza planaren hasieran, ikasle bakoitzari tutore pertsonalizatu bat izendatzen zaio, programa osoan zehar laguntza eta orientazio akademikoa eman diezaion.

Nola Masterraren zuzendariak, hala horretarako izendatutako AZPko langileek erantzuten diete ikasleek egindako galderi.

Azkenik, Master Amaierako Lanaren zuzendaritzaz arduratzen den irakaslearen aholkularitza ere jasotzen dute ikasleek.

1.3. PRACTICUMARI ETA KANPOKO PRAKTIKEI BURUZKO INFORMAZIOA

Masterraren zuzendariak eta Kanpoko Praktika eta Kalitate Arloko dekanordeak nahitaezko kanpoko praktiken eskaintzari eta plaza horietarako eskaera eta esleipen prozedurari buruzko informazio saio batera deitu zituen Masterreko ikasleak.

1.4. MASTER AMAIERAKO LANARI BURUZKO INFORMAZIOA (MAL)

Masterraren lehen mailaren amaieran, zuzendariak MALi buruzko informazio saio batera deitu zituen ikasleak. Bertan, MALen araudiari eta prozesuari buruzko informazioa eman zitzaion. MALak zuzendu ditzaketen irakasleen zerrenda aurkeztu zen, ikasleek lanen zuzendaritzarako beharrezkoak diren harremanak hasteko, eta baita irakasleak adituak diren gai/arlo profesional eta ikerketakoen zerrenda ere. Ikasleei jakinarazi zitzaion MALen zuzendarien izendapena Masterraren bigarren mailan egin beharko zutela (iraila-abendua).

2. GAIEN KOORDINAZIOARI BEGIRAKO JARDUERAK

Ikasturtea hasi aurretik, Batzorde Akademikoak prozesu bat jarri zuen

martxan, irakasgaien irakasle taldeek euren edukiak, jarduerak eta ebaluazioa koordinatzeko. Irakasle talde guztiek bilera bat edo bi egiten dituzte irakasgaien irakaskuntza eskaini aurretik, eta gutxienez beste bilera bat, irakaskuntzaren ostean, irakasgaien ikasleen ebaluazioa ardatz duena. Batzorde Akademikoak irakasgai bakoitzaren koordinatzaile bat izendatu zuen, eta informazio hori Masterraren harrera saioan ikasleei banatu zitzaien Masterraren Irakaskuntza Gidaliburuan dago txertatuta. Irakasgai buruzko informazio guztia eta irakasle taldeak argitaratuta ageri dira Masterraren Irakaskuntza Gidaliburuan, ikasleei eskura banatzen zaien eta web orrian eskuragarri dagoen horretan.

3. TITULUA HOBETEZEARI BEGIRAKO JARDUERAK ETA EKINTZAK

3.1. IKASKETA PLANAREN ALDAKETAK

Aldaketak Masterraren Batzorde Akademikoan: Masterraren Batzorde Akademikoan, egungo dekanorde Andone Sistiagak hartzen du aurreko dekanorde izandako Oscar Vegasek utzitako lekua.

Eskola magistraletako eta mintegi ordu kopuruak aldatzea *Ebidentzian oinarritutako tratamendu psikologikoak* irakasgaien: eskola magistralen 18 orduetatik 12ra jaistera eskatzen da, 42 mintegi orduetatik 48ra igotzeko.

3.2. IRAKASKUNTZA PLANGINTZA

Masterraren Batzorde Akademikoak, irakaskuntza plangintza egitean, Egiaztapen txostenean ezarritako eta Fakultateko Batzarrak onartutako irizpideen arabera banatu zuen irakaslana irakasle-ikertzaileen artean. Harremanetan jarri zen kanpoko irakasleekin, haien parte-hartzea aztertzeko. Ondoren, sailei helarazi zitzaien irakaslan banaketaren proposamena, berretsi zezaten. Prozesu osoa Akademia Antolakuntzako errektoreordearekin koordinatu zen, eta azken horrek hartu zuen bere gain ordutegiak ezartzeko ardura.

2014-15 ikasturtean, nahitaezko irakasgai hauek eman ziren euskaraz: Psikopatologiaren aurrerapenak, Ebidentzian oinarritutako tratamendu psikologikoak, Esku-hartzea familian, Haur eta gazteen ebaluazioa eta esku-hartzea, eta Osasun Psikologo Orokorren praktika profesionala.

3.3. OSASUN PSIKOLOGIA OROKORREKO MASTERRA ARGITARATZEARI BEGIRAKO JARDUERAK

Web orri bat osatu da, Masterraren funtsezko informazioarekin. Bertan jaso dira berorren aurkezpena, helburuak eta gaitasunak, programa eta irakasleak, antolamendua, sarbidea eta matrikula, baliabide materialak, ordutegia, egutegia eta harremanetarako helbideak. Era berean, praktikei, izena emateari eta matrikulari, tituluaren egiaztapenari, jarraipenari eta sinestamenduari eta irakaskuntza gidaliburei buruzko informazioa dago jasota. Informazio garrantzitsuena hiru hizkuntzatan dago jasota web orrian: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez.

Bestalde, Masterraren Batzorde Akademikoak, eta zehazki, bertako zuzendariak "Master Eguna" Jardunaldian parte hartu zuen. Jardunaldi horretan, UPV/EHUko graduondokoen eskaintzari buruzko informazioa egoten da eskura, hainbat erakusmahaitan. Eta master ikasketa horiei buruzko hitzaldia eskaini ohi da.

Eta hori guztia bat dator Psikologia Fakultateko Ikusgarritasun Planarekin.

3.4. IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK

Psikologia Fakultateak Iradokizun, Kexa eta Erreklamazio sistema bat dauka, baina ez da Osasun Psikologia Orokorreko masterrari buruzko bakar bat ere jaso.

BALIABIDEAK:

BALIABIDE MATERIAL ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Psikologia Fakultateak prestakuntza jardueren garapen egokia bermatzen duten baliabide materialak ditu:

- 23 gela eta ikasteko 6 informatika laborategi; guztiak ere irakaskuntzarako beharrezkoa den ekipamenduarekin (ordenagailuak, proiektio kanoiak, DVD erreproduzitzaileak eta Interneterako konexioa)
- 2 ordenagailu gela, ikasleek modu librean erabil ditzaten
- Erabilera anitzeko gela bat
- Praktiketarako laborategi bat
- Mugikortasun eta Masterreko ikasleentzako gela
- Ekitaldi aretoa eta gradu aretoa; 261 eta 50 pertsonarentzakoak, hurrenez hurren
- Batzar Aretoa
- Dekanotzako bilera gela
- Ikasleen Kontseilurakobulegoa
- Haririk Gabeko WI-FI Sarbide Zerbitzua
- Saitetako mintegiak, Irakasleen bulegoak eta antzeko beste espazio batzuk
- Idazkaritza
- Atezaindegia
- Erreprografia
- Kafetegia, jangela, mikrouhin zerbitzua eta beste batzuk

BERTAN DIHARDUTEN GIZA BALIABIDEEN DESKRIBAPENA

2014-15 ikasturtean, Psikologia Fakultatera atxikitako 28 irakasle irakatsi dute, orotara, Masterrean. Horietako 3 irakasle elkartuak dira; esan nahi baita, irakaskuntza jarduna eta lanbidea uztartzen dituztenak, eta horrek balio erantsia ematen dio ikasleen prestakuntzari, Master honek lanbide eskuduntzak baititu. Helburu berarekin, UPV/EHUz kanpoko beste 9 irakasle ere parte hartu dute Masterrean. Horien lanbide eskarmentua gure ikasleen prestakuntzarako oso baliagarritzat daukagu.

Irakasle horien profila goi mailakoa da (seiurtekoak, psikologia klinikoko espezialista titulua...), bere garaian Masterrean irakatsi ahal izateko xedatutako baldintzak tarteko.

EMAITZAK: TITULUAREN JARRAIPENAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEN BILAKAERAREN ANALISI KUANTITATIBO ETA KUALITATIBOA

1 IKASLEEN SARBIDEA ETA ONARPENA

1.1. Ikasketa eskaera

Nahiz eta Masterra ohiko deialdietatik kanpo eskaini, aurretiko 155 izen-emate izan ziren. Azkenean, 30 ikasle egin zuten matrikula, eskainitako plaza kopuruen mugak xedatzen duen moduan.

1.2. Onartutako ikasleen kopurua eta profila

2014-15 ikasturtean, orotara, 30 ikasle onartu zituzten; eta 6,99 izan zen gutxieneko onarpen nota.

2. IKASKETA ERRENDIMENDUA

Emaitzak oso onak dira ikasketa errendimenduko tasa guztietan; izan ere, errendimendu tasaren emaitza % 97,43 da, arrakasta tasarena %99,85 eta ebaluazio tasarena %97,58.

3. GOGOBETETZEA

3.1. Ikasleen gogobetetzea

Masterraren Batzorde Akademikoak erabaki zuen gogobetetze inkestak bi urtean behin egitea, egresatuen promozio bakoitzaren amaierarekin bat etorrira. Ikasleek emandako informazioa oso baliagarria izan zen, bigarren promozioari begira Masterra hobetzeko. Ikasleek garrantzi handia eman zieten jarduera praktikoei eta ikasleen ebaluazioan irakasleen koordinazioari.

Irakaskuntzari begirako gogobetetzearen balorazioa. Irakasleen irakaslanari buruz ikasleei eginiko iritzi inkestaren emaitzak oso onak dira. 25 irakasleri buruzko 606 galdetegi bete dituzte, eta gogobetetze orokorrean 4,28ko batez bestekoa lortu da (tartea: 1-5).

3.2. Irakasle eta ikertzaileen eta AZPko langileen gogobetetzea

Ikusi Graduako emaitzak.